

# MIDI D'OSSAU

## Eneko Pou

**E**Z da posible, zein da beste aldietarekiko diferentzia hau? Beste biraketa bat, eta beste bat. Burua guztiz sartuta daukat egiten dudana mugimendu bakoitzean. Ez du ematen benetan Midi d'Ossauko 3. Tximinia honetan sartuta nagoenik. Guztia oso aldapatsua da, (50º-55º), eta burua alde batera eta bestera mugitzen dudana bakoitzean topo egiten dut metro asko eta asko beherantz joaten den malda hunkigarri batekin bakarrik. Baina, gaur, egin dudana lehenengo biraketatik konturatu naiz ez naizela konfunditu eguna aukeratzeko. Neure buruak ez du beste gauza batetan pentsatzen eta biraketa bat prestatzen nagoen bitartean, berak, hurrengo saltua non izango den badauka zehaztuta. Ez dago tentsiorik, are gutxiago beldurrik. Momentuz guztia gozamina da. Denbora askotan jeitsiera hau hainbeste amesterakoan, errealitatea bihurtu, eta guztia lehen egindako pausuak berregitea izango balitz bezala.

Hirugarren tximinia bukatu eta harrien artean sartzen naiz pasaleku estu batzuetatik. Biraketa bakoitza burutzen dudana heinean gero eta seguruago sentitzen naiz eta oihuen artean nere poza isladatzen diot Rauli. Maldak bere inklinazioa jeitsi du baina oraindik nahiko tente dago (50º inguru). Hurrengo metroetan piskanaka jeisten joango da, erdiko elur zelaian 45º ingurura ailegatu arte. Alde honetan biraketa batzuk kateatuko ditut nere buruarekiko konfidantza baieztatzen den bitartean. Konfidantza hau ezinbestekoa da, oraindik metro asko eta asko gelditzen direlako nire eskien puntatik behera. Harri eta kanale estuetako pasabideak, baina gehienbat, burutik kendu ezin dezakezun 300mtako jauzi beldurgarria. Dagoeneko 3. eta 2. tximinien arteko elur zelaian kokatu gara. Ez goaz batere azkar, gehienbat, leku honetan korritzea komeni ez denez aparte, argazkiak botatzen gabiltzalako. Bazen garaia! Horrelako jeitsiera batzuk egin ondoren, lehenengo aldiz, lagun bat etorri delako argazkiak botatzera. Eskertzekoa da.

Jeitsieraren erdiko partea da eta balantzea egiteko unea baita ere. Zati gogorrena eginda dago, eta orain daukadan konfidantzarekin, bakarrik geldituko zait kontzentrazioa ez galtzea gelditzen diren bi tximinietan.

Baina hobereana izango da atzera botatzea abentura guzti hau nola hasi zen hobeto uler dezagun...



RAUL CHORENAREN ARGAZKIAK

### ■ Midi d'Ossau helburua, eskiak medioa eta La Fourche eta Bide Klasikoa jeitsierak

Hau guztia buruan geneukala irten ginen Gasteizetik martxoaren 22an goizeko 7'30ak aldera nere lagun den Raul Choren eta ni neu. Piska bat berandu agian, baina betiko kontua, goizago esnatzeko gogorik ez. 11etan gutxi gora behera Portaletoko aparkalekuan geunden, eta 12etarako guztia prestatuta geneukala, erdi euritan zegoela aterata ginen Pombieko aterperantza. Oraindik posible zen aparkaleku bertatik eskiekin ateratzea eta Raulek bere mendiko eskiak prestatzen zituen bitartean, nik nere pistako eskien fijaziotan tramankulu berezia jartzen nien fokeatu ahal izateko. Ordu eta erdi kostatu zitzaigun aterperaino ailegatzea, bi egunetarako gauza guztiekin. Ordu bietan, "mendira irtetzeko ordurik aproposenean", irten ginen aterpetik Gran Raillere zeharkatu eta La Fourcheko korredore estuan sartzeko. Gran Raillereko zati guztia fokeatu genuen eta La Fourchera sartzekoan eskiak kendu, motxilan gorde eta kranpoiak eta pioletak ateratu genituen. Hemendik aurrera sekulako paliza hartu genuen azterna irekitzen, elur asko zegoelako eta gainera guztiz bigunduta. Korredorea gero eta gehiago estutzen da eta estutzen den bitartean inklinazioa hartzen doa.


Hortik aurrera, Raulek eskiak uztea erabaki zuen. Horrela arintasan gehiagoz argazkiak botatzen joan eta zergatik ez, baita ere, azterna irekitzearen erantzunkizun gehiena hartzeko. Hortan aritu ginen lau ordu jarraian Midi d'Ossauko mendi txikia eta handiaren artean ailegatzen den La Fourcheko leporaino. Oso neketsua izan zen eta gainera eguraldia ez zen batere ona. Baina arratsaldeko 6ak zirenez ez zegoen denborarik ezertarako, eta minutu bat galdu baino lehen, ekipo guztia prestatu, eta lehenengo biraketarako martxan jarri nintzen. Hauek ez dira oso zailak korredorea

#### Goian, eskuman eta behean.

- Igoeran, lehen tximinia pasa ostean
- 3. tximiniatik ateratzen
- 3. tximiniantz



# ESKIEKIN



oraindik oso estua ez delako, baina lehenengo lau biraketen ondoren, kanala guztiz estutu eta aldapa areagotzen da 50° ingurura heltzeko. Zati hau ez da batere erraza. Estua eta inklinatua. Ikusgarria oso baina gozatzekoa baita ere. Horrela, deskantsu gutxiarekin jeisten naiz korredorea zabalitzen den lekuraino. Puntu honetan gelditu eta pazientzia osoz aztertuko dut nondik pasa dezakegun arrisku gutxiz hementxe egiten den sekulako zuloa. Segundu batzuren ondoren aurkitzen dut salto txiki baten laguntzaz igarotzeko pasalekua. Hau egin ondoren, zailtasun guztiak bukatzen dira eta hemendik aterperaino gero eta zabalagoa den kanal polit bat besterik ez da. Zati hau biok eskiatu genuen ahalik eta azkarren, eta iluntzen zegoenerako, arratsaldeko 7'30tan alegia, gure gordelekura ailegatu ginen.

Ez geneukan inolako bisitarik gure mendiko etxe honetan eta zaindaria ez zegoenez, biontzako bakarrik izan genuen mendiko "hotela". Arropaz aldatu eta afaria prestazen hasi ginen. Betiko moduan, afaria ez zen izan amak prestatzen dituen horietakoak bezala, baina geneukan goserako nahikoa.

Ostegun honetan nahiko nekatuta bukatu genuen eta eguraldia oso garbi ikusten ez zenez, iratzargailua jarri gabe oheratu ginen. Hurrengo egunean zer gertatuko zen batere garbi jakin barik.

Goizeko 8'15etan ireki genuen begia. Atzoko egunarekin konparatuta eguraldia askoz hobea zegoen. Ez zen ia hodeirik zeruan baina aurtengo hego haize zakarra lagun izango genuen egun guztian zehar. Nahiz eta gorputza leher eginda euki eta arropa guztia erdi bustita, azkenean, erabaki genuen saiatuko ginela. Gainera, honaino igoak ginen, batez ere, jeitsiera hau saiatzeko, La Fourcheko korredorea erakargarria bazen ere, Midi d'Ossauko bide normalaren jeitsierak guztiz betetzen ninduelako.

Jeitsiera honen ideia 1996. urtean etorri zitzaidan burura, Midi iparraldeko kanale bat nere lagun Montxorekin eskalatu ondoren, bide normaletik jeitsi ginenean. Nere harridurarako, ez genuen arroka zapaldu jeitsiera osoan, eta orduan konturatu nintzen posible izango zela eskiekin jeitea. Zaila, baina posiblea. Geroztik, betiko kontua: laguna bilatu eta ez aurkitu, denbora libre, udaberriko eskalatzeko gogo...

Baina azkenean, 2001 urteko martxoaren 23. egun honetan Pombieko aterpean aurkitzen nintzen Raulekin batera. Bai, kantsatuta, haize gehiegi jotzen zuen, beranduegi... Baina noiz izango nituen berriro horrelako baldintzak nere eskura...? Beste bost urte barru?. Gogoeta hauek egin ondoren errez ikusi nuen ez direla galdu behar bizitza honek ematen dizkigun aukerak eta burua gehiago hautsi gabe, materiale guztia prestatu eta goizeko 9'30etan atera ginen aterpetik.

## ■ Martxoaren 23.ean

11etan ailegatu ginen lehenengo tximiniaren sarrerara baina ez arazo dexente barik, sekulako haize boladak zirela eta, behin baino gehiagotan buelta emateko zorian egon ginelako. Baina Raulek ondo ezagutzen nauenez ez zuen sorpresarekin hartu nere burugortasuna.





### Eskuman, erdian eta eskumarago.

- erdialdeko elur zelaia
- 3. tximinian
- 3. tximinia sartzen

RAUL CHOREMAREN ARGAZKIAK



Hemen gorde genituen eskiak, foka larruak... eta eskalatzeko materiala jantzi genuen. Raulek erabaki zuen bere eskiak hemen uztea eta horrela igotzeko unean, pisu gutxiago eramango zenez, aurrean azterna irekitzen hobeto moldatuko zen. Horrela izan zen, eta piskanaka, altuera hartzen joan ginen Midiko ekialdeko isurialde honetatik. Elur biguna zegoen eta orkatileraino sartzen ziren gure eskiatzeko botak. Lehenengo tximinia pasatu, 2.ean piolet trakzioko teknika erabili behar izan genuen (orduan konturatu ginen ezin izango genuela tximinia bertatik pasatu), eta 3.aren malda ikusterakoan, gure beldur guztiak agerian gelditu ziren. Ez genuen behar izan komentario gehiegi, aurpegiatan errez isladatzen baitzen buruan zegoen ezinegona.

Hirugarren tximinia bukatu eta hortik gorainoko malda luze hori izan zen neketsuena. Gure gorputza ez zegoen gauza askotarako eta gainera, zati horretan, azterna irekitzea sekulako lana bilakatu zen.

Egurdiko 1'30ak ziren. Azkenean gailurrean geunden. Ez denbora askorako, haize boladak iparraldeko isurialderantz botatzen gintuelako. Ahal izan genuen moduan argazki bi atera eta fijazioak ondo estutu ondoren jeisten hasten gara. Goiko zatiak ez dauka zailtasun gehiegirik (30°-35° inguru), baina elurra bigunegia dagoenez, belauetaraino sartzen naiz saltu bakoitza ematen dudun unean. Lau biraketa eman eta gelditzen naiz. Leher eginda nago eta oraindik benetako jeitsierari egin behar diot aurre. Erabakitzen dut hoberena izango dela 3. tximinia honetaraino (behetik hasita zenbatuta) oso lasai jeistea, nere indar guztiak hemendik aurrera datorrenarako gordetzeko. 3. tximinia honetara ailegatzeko 50m gelditzen direnean ebazten dugu geldiune bat egitea. Ia 30rdu jarraian daramagu gelditu barik, eta gorputza deskantsu eske ari zaigu azken partetik.

Momentu egokia da gelditzeko, atsedenez aparte, buruak eguneko erabakirik litzena hartu behar duelako: jeitsi edo ez jeitsi? Erabaki garrantzitsu honi ematen dizkio bueltak neure buruak, malda erdian eserita, jaten eta edaten saiatzen garen bitartean. Buruhautea ez dago batere garbi, eta Raulek argi utzi dizkit bere beldur guztiak 3. tximinia igotzen genuen birtartean, haizera botatako galderaren bitartez: Eneko, kapaz izango zara malda honetatik jeisteko? Txarrena da nik sentazio berdina euki dudala. Oso tente ikusi dut, eta honek, zalantzak sortarazi dizkit. Baina badakit, zalantzak alde batera utzi behar direla eta benetazko erabakiak

hartzeko unea heldu dela. Erabakia nerea da bakarrik, eta dagoeneko, hartuta daukat. Oso gutxitan utzi dut ezer saiatu barik eta aldi honetan ez da ezberdina izango. Dudak atzean utzi ditut eskiak berriro jarri ditudan unetik. Zalantzak, kontzentrazioari eman dio paso 3. tximiniaren bidean jarri naizen momentutik.

Baina hemendik aurrera gertatutakoa badakizue eta bakarrik gelditzen zaigu jakitea jeitsieraren erdiko partetik aurrera nola joan ziren gauzak...

### ■ Bigarren eta Lehenengo tximinietan murgildurik

Erdiko elur zelai honetan jarraitzen dugu. Kostatu zaigu erabakitzea ze alternatiba bilatuko diogun 2. tximinia estu eta izoztu honi, baina azkenean, ados jarri gara. Argi zegoen ezin izango genuela tximinia bertatik jeitsi eta gauzak horrela, bi aukera bakarrik geneuzkan: tximiniaren ezkerretik edo eskubitik joatea (goitik ikusita). Azkenean bigarren alternatibarekin gelditu gara, aproposago iruditu zaigulako. Elur kanal luze bat da zuzenean 1go tximiniara eramango gaituena. Baina bertara heldu baino lehen zailtasunen bat gehiago aurkituko dugu bidean zehar. Lehenengo, gauden lekutik, 50m inguruko trabesia bat egin beharko dugu. Trabesia errez samarra izango da eta kanalaren sarreraren goikaldean utziko gaitu. Horra ezin gara zuzenean sartu, eta hasteko, pasabide oso estu eta aldapatsu batetik igaro beharko gara, ondoren, beste trabesi txiki bat egin elur zelai luzera heltzeko. Pasabide estuak apenas 7m dauzka, 60° inguruko maldarekin eta harriz jositakoa. Arrazoi hauengatik ez zait beste erremediarik geldituko, eta pioleta aterata, derrapatzen jeitsi beharko dut. Hau bukatuta, trabesia txikia kontu handiz igaro eta azkenean 1go tximiniara doan kanale luze hontan kokatzen naiz. 1go zatia, estua eta aldapatsua da (50° ingurukoa edo gehiago), eta zabalitzen joaten den heinean inklinazioa galtzen du 1go tximiniara ailegatu arte. Elurra bikain dago, jeitsiera osoan bezalaxe, eta gozatzen dut biraketa bakoitza egiten dudun bitartean. Beldur guztiak atzean gelditu dira eta disfrutatzeko garaia heldu zait. Korredorearen zabalerak biraketak nahi dudun unean egiteko aukera ematen dit, eta penaz konturatu naiz, jeitsiera bukatzen dela, 1go tximiniaren goikaldean nagoenean. Ez dizkit arazorik emango tximinia honek, elur asko dagoenez, nahiko zabala dagoelako, eta gainera malda ez da



45°tik askoz goragokoa. Bukeran rimaila txiki batekin aurkitzerakoan, asko pentsatu gabe, zuzen botatzen naiz jeitsieraren azken oztupoarekin amaitzeko. Raul, dagoeneko, behean dago argazkiak botatzera jeitsi baita. Segundu batzuk beranduago berarekin elkartzen naiz 4 ordu lehenago gure beldur guztiak utzi eta ekialdeko isurialde hau igotzen hasi ginen leku berberetan. Lehenengo tximiniaren sarreran alegia. Denbora luzean gogoratuko dudana izan zen. Berarekin besarkatu eta nahi gabe zerura botatzen ditut jarraian bostpasei garrasi. Guztiz beteta sentitzen naiz. Zorionez jota. Hitzekin sentitzen duzuna isladatzea ezinezkoa den momentu horietakoa. Errez errepikatuko ez den momentua. Beste amets bat bete egin dut eta suerte piska batekin ez da azkena izango. □



FITXA TEKNIKOA

■ **MIDI D'OSSAUO PUNTA HANDIA 2888 m**  
*Ekialde isurialdeko Bide Normala. "Tximinietako Bidea Deitutakoa"*

- 1 **Desnibela:** 500 m
- 2 **Zailtasuna:** 50-55°
- Ez da jeisten 45°. Zailena 3. Tximinia da 55° ailegatu daitekelako.
- 3 **Esposizioa:** Oso altua, jeitsiera osoa harriz beteta dagoelako.
- 4 **Ordutegia:**
  - Portaletako aparkalekutik lehenengo tximiniaren sarreraraino: 2'30"-3'30"
  - Lehenengo tximiniatik gailurreraino: 1'30"-3'
  - Gailurretik lehenengo tximiniaren sarrerarainoko eskiekin jeitsiera: 1'-2' ordu
  - Eskiekin lehenengo tximiniatik Portaletako aparkaleraino: 1'-1'45"
- 5 **Garaia:** Martxo eta apirila, baina kontutan hartu behar dira urte bakoitzeko kondizio propioak. Hilabete hauek baino lehenago suposatzen da elurra ez dela nahiko asentatuta egongo eta apiraletik aurrera errez gerta daiteke elurra faltatzea, gehien bat lehenengo tximinian.
- 6 **Material espezifikoa:** Eski alpinoko materiala oso gomendagarria da (kontuz trabesiako materialarekin! askotan ez daukalako fidagarritasun nahikorik).
  - **Jeitsiera honetan erabilitakoa:**
    - Pistaz kanpoko Blizzard eskiak.
    - Raichle pista konpetiziorako botak.
    - Marker fijazioak (guztiz estutuak).
    - Leki bastoi zurrunak.

◆ **Neguan eskalatzeko materiala:**

- Grivel kranpoiak.
- Grivel pioletak.
- Alpinismoko Roca arnesa.
- ◆ **Aukeratzeko:** Soka, arrokako eta neguko iltzeak, mosketoiak... (hau guztia ez genuen eraman).
- 7 **Jeitsiera hau 2001-03-23an egin zen.**

■ **MIDI D'OSSAU 2888 m**

*Hegoaldeko La Fourcheko Korredorea. Punta Txikia eta Punta Handia Banatzen dituen Kanala.*

- 1 **Desnibela:** 680 m
- 2 **Zailtasuna:** 50°
- Askoz jota 50° dauka. Bi zati oso diferente: Goiko zati estua, ez da 45°tik jeisten. Behekoa, askoz zabalagoa erreza da, 30°-40°.
- 3 **Esposizioa:** Goiko zati estuan erdikoa eta hemendik aurrera baxua.
- 4 **Ordutegia:**
  - Portaletako aparkalekutik Pombieko aterperaino: 1'-1'30"
  - Aterpetik La Fourcheko leporaino: 2'-4'.
  - Lepotik aterperainoko eski jeitsiera: 45"-1'.
  - Aterpetik Portaletako aparkaleraino eskiekin: 45"
- 5 **Garaia:** Otsailaren erdialdetik apirilaren erdialderaino. Kontutan hartu hegoaldeko arpegia denez elurra asko biguntzen dela.
- 6 **Material espezifikoa:** Lehenagoko jeitsieraren berbera.
- 7 **Jeitsiera hau 2001-03-24an egin zen.**

**RESUMEN**  
**DOS DESCENSOS**  
**CON ESQUIS EN EL**  
**MIDI D'OSSAU**

**E**NEKO Pou, acompañado por Raul Choren, que hizo el reportaje fotográfico, descendió esquiendo los días 23 y 24 de marzo de 2001 el Corredor de la Fourche, entre el Petit y el Grand Pic, y la vía Normal del Midi d'Ossau. La Fourche, con un desnivel de 680 m, tiene una primera parte estrecha y con una pendiente superior al 45%. El descenso duró una hora.

La vía Normal tiene un desnivel de unos 500 m y una pendiente siempre por encima del 45%. De las tres chimeneas clásicas, la tercera es muy difícil, con un 50°-55% de pendiente; la segunda se evitó por un corredor más a la derecha; y la primera presenta una pendiente que ronda el 45°-50%. El tiempo total de descenso fue de 1 hora y 45 minutos. □